**SEGURAKO UDALA**

SAN JUAN PLAZAN TOLDOAK, TERRAZAK ETA ESTALPEAK JARTZEKO UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA

Segurako Udalbatzak, 2012ko uztailaren 10ean egindako osoko bilkuran, besteak beste, San Juan Plazan toldoak, terrazak eta estalpeak ipintzeko udal ordenantza arautzailea onartu zuen.

Iragarkia 2012ko uztailaren 13ko 134 zk. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zelarik 30 lanegunetako epean erreklamazioak edo oharrak aurkezteko, epe hori igaro da inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu gabe, beraz, erabakia behin betikoa bihurtu da.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak xedatutakoa betez, aipatu ordenantzaren testu osoa argitara ematen da.

Segura. 2012ko irailaren 3a. Alkateak.

SAN JUAN PLAZAN TOLDOAK, TERRAZAK ETA ESTALPEAK JARTZEKO UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA

1. artikulua. Xedea.

1.Ordenantza honen xedea Segurako San Joan Plazan toldoak, terrazak, estalpeak edo barrikak eta elementu osagarriak (eguzkitakoak, alboetako babeskiak, berogailuak etab.) jartzeko araudi tekniko eta juridikoa ezartzea da.

2. Aurreko atalean zehaztutako ondorioetarako soilik, terraza, estalpeak edo barrikak jotzen dira ostalaritzako legezko jardueretan, hala nola, jatetxe, kafetegi eta antzekoetan, aldi baterako osagarri gisa erabiliko diren mahai eta aulkiak.

3. Jarduera lizentziaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoei emango zaie horretarako baimena.

2. artikulua. Aplikatzeko esparrua

Ordenantza hau herri honetako San Joan Plazan aplikatuko da.

3. artikulua. Lizentzia aldez aurretik eduki beharra.

Espazio publikoetako instalazio horiek erabilera komun eta bereziko kategoria juridikoa dute, eta kasu bakoitzean erabilpen horretarako aldez aurretik lortutako udal lizentzia edukitzea beharrezkoa izango da. Lizentzia hori ordenantza honetan oinarrituz emango da.

4. artikulua. Lizentzia ukatzeko arrazoiak.

1. Dagokion udal organoak terrazak jartzeko lizentziarik ez ematea erabaki ahal izango du, honako kasu hauetan:

— Bide segurtasunerako kalteak sortarazten baditu (ikuspena gutxitu, gidariari arreta galarazi, etab.) edo oinezkoen, elbarrien, haur aulkitxoen eta abarren zirkulazioa nolabait eragozten badu.

— Ondoko establezimenduei kalteak sortaraztea (eskaparatea oztopatzea, establezimendura sartzeko lekua murriztea, ebakuaziorako arazoak, etab).

— Ingurunearekiko desegokia edo bat ez datorrena baldin bada, edo hiri paisaiaren irakurketa zuzena eragozten badu.

5. artikulua. Ezaugarriak

Plaza honetan mahaitxoak eta terrazak jartzeko eskaerak kasuan kasuko berezitasunen arabera erabakiko dira. Nolanahi ere, kontuan izan beharko dira zehaztapen orokor hauek:

— Lorategiz hornitutako eremuak, jolas-esparruak eta atsedenlekuak errespetatuko dira.

— Ez da oinezkoen pasabidearen arintasuna oztopatuko.

— Gutxienez 3 metro utzi beharko da mahaien eta mahaien jabe den establezimenduaren pareko fatxaden artean. Salbuespen bezala, jadanik jarritako toldoen kasuan 1,80 metrorekin nahikoa izango da.

6. artikulua. Estetika.

1. 1. Terrazak: Altzariak oro har (mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, etab.) zaintze-egoera onean mantendu beharko dira beti. Establezimenduko gehienez 10 mahai eta 40 aulki ezarriko dira. Jatetxe iharduera dutenek otorduetarako mahai gehigarriak jar ditzakete, beti ere markatutako eremutik irteten ez badira. Toldo edo estalpea (izan ezkero) dagoen eremutik kanpora ezingo dira atera.

2. Toldoak: Ordenantza hau onartu ondoren baimendutakoak ezingo dute 8 x 4 metro baina gehiago eduki eta kolore argia izango dute.

3. Estalpeak: : tamainaz ezingo dute 8 x 4 metro baina gehiago eduki eta mugikorrak izango dira (gurpildunak).

4. Barrikak: establezimenduko gehienez 2 onartuko dira oinezkoei enbarazurik egin gabe, eta terrazako espazioaren barruan ezker-eskuin aldetan kokatuko dira. Beti ere oinezkoen pasabidea oztopatu gabe.

5. Eguzkitakoak: toldoa edo estalpea ez dutenei bakarrik onartuko zaie. Ezingo dira lurrean sartuta egon.

7. artikulua. Lizentzia eskaera.

Eskaerak Udaletxearen Bulegoan aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

1. Eskaera orria, eskatze diren datuak behar bezala beteta eta eskatzailearen sinadurarekin. Eskatzaileak establezimenduaren lizentziaren titularra izan behar du.

2. Establezimenduak jartzeko eta irekitzeko lizentzia eduki beharko du eta udal zerga eta tasak ordainduta izan beharko ditu. Hori ofizioz begiratuko du udalak.

3. Lokalaren kokapena zehazten duen planoa 1:100 eskalan gutxienez (kartografia ofizialeko oinarrien arabera), xehetasun hauek jasotzen dituena: Instalazioak okupatutako espazioa, mahai eta aulkien banaketa, elementu osagarriak (eguzkitakoak, toldoak, alboetako babeskiak, etab), fatxadaren luzera eta geratzen diren gune libreen zabalera. Aipatu beharko dira, halaber, inguruan izan daitekeen edozein elementu (trafiko-seinaleak, zuhaitzak, zutabeak, bankuak, hiri-altzariak, e.a.) eta instalazioek eraginda gerta daitezkeen udal zerbitzuak (ura, saneamendua, gasa).

8. artikulua. Erabakia.

1. Ordenantza honen arabera lizentzia eskatu ondoren, eta txosten tekniko eta juridikoa aztertu eta gero, dagokion udal organoak erantzun egin beharko die aurkeztutako eskaera guztiei 2 hilabeteko epe barruan.

2. Lizentzia-agirian honako datu hauek azaldu beharko dira: Instalazioak bete beharreko baldintzak, okupatuko den espazioa, mahai eta aulki-kopurua, lizentzia indarrean izango den epea eta beharrezkoak irizten diren beste zenbait berezitasun.

3. Eskatutako lizentzia ematea ez dela egokia irizten bada edo eman beharreko lizentziak eskatutakoarekiko aldaketaren bat badu, Udalak epe bat emango dio eskatzaileari ondo deritzon alegazioak egin ditzan.

9. artikulua. Lizentziaren baldintzak.

1. Beti ere ulertu behar da lizentziak jabetza eskubidea salbu utzita eta beste inoren eskubiderik kaltetu gabe emanak direla. Nolanahi ere, ezingo da lizentzia hauek aitzakiatzat hartuz jarduera gauzatzerakoan onuradunak eragin dituen erantzukizun zibil edo penalak saihestu edo gutxitu.

2. Baimendutako mahaitxoak bakarrik jarri ahal izango dira, eta baimendutako lekuan bakarrik.

3. Edozein aldaketa egiteko beste eskaera bat aurkeztu beharko da eta dagokion baimena lortu.

4. Udal lizentzia beti behin-behinekoa izango da. Dagokion udal organoak trafikoa, urbanizazioa edota interes orokorreko beste edozein arazo dela eta, jarritako mahaiak bide publikotik besterik gabe kentzeko agindua eman dezake, bere titularraren kontura eta horri inolako kalte-ordainik ordaindu gabe.

5. Halaber, lizentziaren baldintzak aldatu edo lizentzia bera indarrik gabe utzi dezake udalak, edozein arrazoi dela medio auzotarrei eragozpenak sortarazten zaizkiela egiaztatzen denean.

10. artikulua. Tasa.

1. Lizentziaren jabeak dagokion tasa ordaindu beharko dio Udalari, zerga-ordenantzak ezarritako kopuruan eta eran.

11. artikulua. Lizentziaren iraupena.

Urte bateko iraupena izango du.

Herriko festa edota plazako eremu osoa behar duten ekintza kulturalak burutzeko garaian ezingo dira ezarri.

12. artikulua. Instalatzeko baldintzak.

Lizentzia lortu ondoren titularra Udal Zerbitzuekin harremanetan jarriko da, horiek zehaztuko diotelarik lekuan bertan zein izango den okupa daitekeen gehieneko espazioa.

13. artikulua. Ordutegia.

1. Jarduera nagusiak duen ordutegia alde batera utzita, mahaitxo edo terrazen ordutegia honako hau izango da:

Egunero 9etatik aurrera.

14. artikulua. Instalazioaren titularraren betebeharrak.

1. Lizentziaren jabeari dagokio okupatutako eremua behar bezain garbi edukitzea. Instalazioaren titularrak erabiltzeko baimenpean dauden zorua garbi, txukun, apain eta segurtasun neurriak betez eduki beharko ditu, horretarako beharrezkoak diren denbora eta baliabide guztiak, paperontziak, hautsontziak, e.a. erabiliz. Jabeak zorua garbi mantendu beharko du, behar bezain bestetan garbitu behar badu ere.

2. Instalazioaren jabeak gainontzeko auzotarrek lasai egoteko duten eskubidea errespetarazteaz arduratu behar du, eta ez du iskanbila, sesio edota zaratarik onartuko, arreta berezia ipiniz gaueko 22:00etatik aurrera.

3.- Egunero terraza jaso beharko da. Gauez establezimendua itxita gelditzen denean, ezingo da terraza jarrita utzi eta egoki bilduta geratu beharko dira mahai eta aulkiak, ahal den leku gutxien okupatuz. Estalpea guztiz bilduta gelditu beharko da. Hau zoruari ainguratuta gelditu beharko da.

15. artikulua. Arau hausteak.

Ordenantza honen ondorioetarako arau hausteak arin eta larrietan sailkatzen dira:

1. Hauek dira arau hauste arinak:

a) Inguruko bizilagunei eragozpenak sortzea.

b) Terraza edo mahaitxoak hartutako lekua behar bezain garbi ez edukitzea.

c) Terraza edo mahaitxoak hartutako lekua, horiek gorde ondoren, behar bezala garbituta ez uztea.

d) Ez jaso mahai eta aulkiak bide publikoan sakabanatuta utzita.

e) Ordenantza honetan ezarritako ordutegia ez betetzea.

f) Lizentziaren beste edozein baldintza edo Ordenantza honetan jasotako aginduren bat ez betetzea.

2. Hauek dira arau hauste larriak:

a) Lizentziak baimendutakoa ez den leku edo espazioa hartzea.

b) Lizentziak baimendutako mahaitxo eta aulkiak baino gehiago jartzea edota bertan aurreikusten ez diren elementuak jartzea.

c) Mahaitxoak, terrazak eta bestelako elementu osagarriak lizentziarik gabe jartzea edo baimendutakoak baino mahaitxo gehiago edo handiagoak jartzea.

d) Musika-tresnak edo bozgorailuak jartzea.

e) Zigor espedienteari hasiera eman aurreko urte betean bi arau-hauste arin eginak izatea eta horregatik ebazpen irmo bidez zigorra ezarria izatea.

16. artikulua. Zigorrak.

1. Ordenantza honetako arau-hausteak direla eta, eskala honen arabera ezarriko dira isunak:

a) Arau-hauste arinak: Ordenantza honen lehen arau-haustea ikusiz gero, hitzez ohartaraziko zaio dagokionari. Arau-haustea errepikatuko balitz, 90 eurotik 300 euro arteko isuna jarriko da.

b) Arau hauste larriak: 300,01 € eta 900 € arteko isuna.

17. artikulua. Lizentzia kentzea.

Urte beteko epean bi arau-hauste larri egin eta horregatik ebazpen irmo bidez zigortua izateak lizentzia kentzea eta bi urteko epean beste lizentziarik ez ematea ekarriko du.

18. artikulua. Ordezko betearazpena.

Instalazioaren arduradunak ez badu bide publikoan jarritako elementuak kentzeko udal agindua betetzen, Ordenantza honetan jasotako kasuetan, Udalak instalazio guztiak kendu eta udal biltegira eramango ditu, biltegitik atera ahal izateko sortutako gastuak ordaindu beharko dituelarik jabeak, hala ezartzen baitu Administrazio Prozedura Erkidearen otsailaren 26ko 30/1992 Legearen 98. artikuluak.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.

Ordenantza hau indarrean sartu aurretik emandako lizentziak, bere baldintzen arabera egikarituko dira, iraungitzen diren arte.

Bigarrena.

Ordenantza hau indarrean sartu aurretik aurkeztu eta erabaki gabe dauden eskaerak Ordenantza honetan araututakoaren arabera erabakiko dira.

AZKEN XEDAPENA

1. Ordenantza honen testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera hasiko da ondorioak sortzen ordenantza hau.

SEGURAKO UDALA

**AYUNTAMIENTO DE SEGURA**

ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACION EN LAPLAZA SAN JUAN DE TOLDOS, TERRAZAS Y VELADORES

El pleno del Ayuntamiento de Segura, en sesión celebrada el 10 de Julio de 2012, adoptó entre otros, el acuerdo de aprobar la Ordenanza municipal reguladora de la instalación en la Plaza San Juan de toldos, terrazas y veladores.

Publicado el anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 134, de 13 de Julio de 2012, y transcurrido el plazo de información pública de 30 días hábiles sin que se haya formulado reclamación o sugerencia alguna, el acuerdo inicial ha devenido definitivo.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, se procede a la publicación íntegra del citado texto normativo.

Segura, a 3 de setiembre de 2012.—La Alcalde

ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACION EN LAPLAZA SAN JUAN DE TOLDOS, TERRAZAS Y VELADORES

Artículo 1. Objeto.

1. Es objeto de la presente Ordenanza establecer el régimen técnico y jurídico para la instalación sobre la vía pública de toldos, terrazas, veladores o barricas y elementos auxiliares (sombrillas, protecciones laterales, estufas, etc.) en la Plaza San Juan de esta villa.

2. Únicamente a efectos de lo señalado en el artículo anterior, se entiende como terraza, velador o barrica al conjunto que forman las mesas y las sillas que sirvan de complemento temporal a una actividad legal del ramo de la hostelería, tales como restaurantes, cafeterías y similares.

3. La licencia para la instalación del citado mobiliario se concederá a las personas físicas o jurídicas titulares de la licencia de actividad.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

La presente Ordenanza es aplicable a la Plaza San Juan de esta villa.

Artículo 3. Necesidad de obtención de licencia previa.

Las citadas instalaciones en espacios públicos, tienen la categoría jurídica de uso común especial y requieren para su ejercicio, en cada caso, licencia municipal previa que se concederá de acuerdo con lo previsto en la presente Ordenanza.

Artículo 4. Motivos de denegación de la licencia.

1. El Órgano Municipal competente podrá no autorizar la instalación de terrazas en cualquiera de los supuestos siguientes:

— Que suponga perjuicio para la seguridad (disminución de la visibilidad, distracción del conductor, etc.) o dificulte sensiblemente el paso de peatones, minusválidos, sillas de niño, etc.

— Que suponga un perjuicio para los establecimientos colindantes (cierre de escaparates, reducción considerable del acceso al establecimiento, problemas de evacuación, etc.).

— Que resulte formalmente inadecuada o discordante con su entorno, o dificulte la correcta lectura del paisaje urbano.

Artículo 5. Características

Las solicitudes para la instalación de veladores y terrazas en esta plaza se resolverán según las peculiaridades de cada caso concreto y con sujeción a las siguientes limitaciones generales:

— Se respetarán las zonas ajardinadas, zonas de juegos y descanso existentes (bancos).

— No se impedirá la fluidez del paso de los viandantes.

— Únicamente podrán solicitar licencia de ocupación de la vía pública en estos espacios los titulares de los locales de hostelería cuyos frentes de fachada den a los mismos.

— Los veladores se separarán un mínimo de 3 metros de las fachadas de los establecimientos a que pertenecen. Excepcionalmente para los toldos instalados con anterioridad a la aprobación de esta Ordenanza podrá exigirse únicamente 1,80 mts.

Artículo 6. Estética.

1. Terrazas: El mobiliario en general (mesas, sillas, sombrillas, etc.) se deberá mantener siempre en buen estado de conservación. Se colocará un máximo de 10 mesas y 40 sillas por establecimiento. Los que tenga actividad de restaurante podrán colocar mesas suplementarias siempre que no se salgan del ámbito delimitado. No podrán sobresalir del espacio que cubre el toldo o velador (si lo tuviera).

3- Toldos: Los toldos que se coloquen a partir de la aprobación de esta Ordenanza srán de una dimensión máxima de 8 por 4 metros y tendrán color claro.

3.- Veladores: Deberán ser móviles (con ruedas).

4.- Barricas: Se permitirán un máximo de dos por establecimiento y serán colocadas sin que molesten a los viandantes en los laterales cortos derecho e izquierdo del espacio ocupado por la terraza. En cualquier caso respetarán las zonas de paso de los peatones

5.- Sombrillas: Solo se permitirán para las terrazas que no tengan toldo y/o velador. No podrán ir ancladas al suelo.

Artículo 7. Solicitud de licencia.

La solicitud será presentada en la Oficina del Ayuntamiento, acompañada de los siguientes documentos:

1. Solicitud, debidamente cumplimentada y firmada por el solicitante. El solicitante deberá ser el titular de la licencia del establecimiento.

2. Acreditación de disponer de licencia de instalación y apertura de establecimientos, y asimismo documento acreditativo de que se está al día en el pago de las tasas e impuestos municipales. Este requisito será comprobado de oficio por el Ayuntamiento.

3. Plano de emplazamiento a escala no inferior a 1:100 (sobre la base de cartografía oficial), con detalle suficiente de la superficie a ocupar por la instalación, la distribución de mesas y sillas, los elementos auxiliares (sombrillas, toldos, protecciones laterales, etc.), y la longitud de la fachada y del ancho de los espacios libres resultantes, reflejando, además, la existencia de cualquier elemento urbano (señales de tráfico, árboles, bancos, columnas, mobiliario urbano etc.) y posibles afecciones a servicios municipales (aguas, saneamiento, gas, etc.).

Artículo 8. Resolución.

1. Formulada la petición en los términos exigidos en la presente Ordenanza, y previo informe técnico y jurídico, se resolverá por el Órgano Municipal competente dentro del plazo de dos meses.

2. En el documento de la licencia se fijarán las condiciones de la instalación, superficie a ocupar, número de mesas y sillas, periodo de vigencia de la licencia y demás particularidades que se estimen necesarias.

3. Si no se considerase oportuna la concesión de la licencia solicitada o si la autorización a conceder supusiera una variación con respecto a lo solicitado, el Ayuntamiento dará audiencia al/a la solicitante, a fin de que pueda alegar lo que estime oportuno.

Artículo 9. Condiciones de la licencia.

1. Las licencias se entenderán siempre otorgadas salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de tercero, no pudiendo ser invocadas para excluir o disminuir la responsabilidad civil o penal en que hubiera incurrido el/la beneficiario/a en el ejercicio de sus actividades.

2. Se colocarán exclusivamente los veladores autorizados, y solamente en los lugares autorizados.

3. Para cualquier cambio, se deberá presentar nueva solicitud y obtener la correspondiente autorización.

4. La licencia municipal tendrá siempre carácter de precario y el Órgano Municipal correspondiente podrá ordenar la retirada de la vía pública de la instalación, corriendo los gastos a costa del/de la titular de las instalaciones autorizadas y sin que ello dé derecho a indemnización alguna, cuando circunstancias de tráfico, urbanización o cualquier otra de interés general así lo aconsejen.

5. Asimismo, el Ayuntamiento podrá modificar las condiciones de la licencia o derogar la misma, en aquellos casos en que se constate que, por cualquier otro motivo se producen molestias al vecindario.

Artículo 10. Tasa.

1. El/la titular de la licencia abonará al Ayuntamiento la tasa que le corresponda, en la cuantía y forma establecida por la Ordenanza Fiscal correspondiente.

Artículo 11. Duración de la licencia.

Será anual.

No podrán instalarse en Fiestas patronales y cuando se celebren en la plaza actividades culturales que requieran de todo el espacio de la misma

Artículo 12. Condiciones de instalación.

Obtenida la licencia el/la titular de la misma se pondrá en contacto con los servicios municipales, que delimitarán sobre el lugar la superficie máxima de ocupación autorizada.

Artículo 13. Horario.

1. Con independencia del horario que tenga autorizada la actividad principal, la utilización de los veladores o de las terrazas queda limitada al siguiente horario:

Todos los días, a partir de las 9 de la mañana.

Artículo 14. Obligaciones del titular de la instalación.

1. Corresponderá al/a la titular de la licencia mantener la zona ocupada en perfecto estado de limpieza. El/la titular de la instalación queda obligado/a a mantener tanto el suelo, cuya ocupación se autoriza, como la propia instalación y sus elementos auxiliares, en perfectas condiciones de limpieza, seguridad y ornato, disponiendo para ello de todos los medios necesarios como papeleras, ceniceros, etc, así como del tiempo necesario. El/la titular de la instalación deberá mantener limpio el suelo, realizando la limpieza las veces que sea necesario.

2. El/la titular de la instalación velará para que se respete el derecho a la tranquilidad del resto del vecindario, por lo que no permitirá escándalos, riñas y/o ruidos en general en la instalación, con especial atención a partir de las 22:00 horas.

3.- Se deberá recoger toda la terraza a diario. No podrá dejarse instalada por la noche, una vez el establecimiento al que pertenece haya cerrado, debiendo dejar las mesas y sillas recogidas y ocupando el menor espacio posible. Los veladores también deberán quedar recogidos y anclados al suelo.

Artículo 15. Infracciones.

A los efectos de la presente Ordenanza, las infracciones se clasifican en leves y graves:

1. Tendrán la consideración de infracción leves:

a) Causar molestias al vecindario.

b) No mantener el espacio ocupado por la terraza o velador en las debidas condiciones de limpieza.

c) No dejar en perfecto estado de limpieza el espacio ocupado por la terraza o velador una vez retirado de la vía pública.

d) No recoger las mesas y las sillas de la vía pública, dejándolas esparcidas en la misma.

e) Incumplir el horario establecido en la presente Ordenanza.

f) Cualquier otro incumplimiento de las condiciones de la licencia o de los preceptos recogidos en la presente Ordenanza.

2. Tendrán la consideración de infracciones graves:

a) Ocupar un lugar o espacio distinto al permitido por la licencia.

b) Instalar un número de mesas y sillas, u otros objetos, no contemplados por la licencia.

c) Instalar veladores, terrazas y otros elementos auxiliares sin licencia o instalar un número o tamaño de mesas y sillas, no contemplado por la licencia.

d) Instalar aparatos de música o altavoces.

e) La comisión de dos infracciones leves, con imposición de sanción por resolución firme, durante el año anterior al inicio del expediente sancionador.

Artículo 16. Sanciones.

1. Las infracciones de la presente Ordenanza serán sancionadas con multa de conformidad con la siguiente escala:

a) Infracciones leves: Cuando se observare una primera infracción de la presente ordenanza se apercibirá de palabra. En caso de que la actuación volviera a producirse se sancionará con multa de 90 euros a 300 euros».

b) Infracciones graves con multa de 300,01 € a 900 €.

Artículo 17. Retirada de licencia.

La comisión en un año de dos infracciones graves, con imposición de sanción por resolución firme, llevará consigo la retirada de la licencia y la imposibilidad de obtener otra licencia durante dos años.

Artículo 18. Ejecución subsidiaria.

Cuando el/la responsable de la instalación hiciera caso omiso de la orden municipal de retirada de los elementos instalados en la vía pública, en los supuestos recogidos en la presente Ordenanza, el Ayuntamiento procederá al levantamiento de los mismos, quedando depositados en los almacenes municipales, de donde podrán ser retirados por la propiedad, previo abono de los gastos que haya ocasionado, de conformidad con lo establecido en el artículo 98 de la Ley 30/1992 de 26 de febrero del Procedimiento Administrativo Común.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.

Las licencias concedidas con anterioridad a la entrada en vigor de esta Ordenanza se ajustarán a sus condiciones hasta su extinción.

Segunda.

Las solicitudes presentadas con anterioridad a la entrada en vigor de esta Ordenanza que estén sin resolver, serán resueltas conforme a lo estipulado en la presente Ordenanza.

DISPOSICIÓN FINAL

1. La presente Ordenanza surtirá efectos a partir del día siguiente al de la publicación del texto íntegro de la misma en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.